

IV. Kongresuaren esanguratsuen batasuna izango dela dio PSN-PSOEk

'Nafarroaren aurrerapena eraikitzen dugu' lemapean, hilaren 16 eta 17an

PSN-PSOEk datorren asteburuan Iruñean egingo duen IV. Kongresuan ponentzia nagusiari aurkeztutako 157 emendakin eta lau erabaki proposamen eztabaidatuko dituzte 208 ordezkariak. Alderdiko estatutoen aldaketa, Exekutibaren hautaketa eta egitismo politikoa ere bertan erabakiko dira.

ANA UNANUE / IRUÑEA

Nafarroako alderdi sozialistaren IV. Kongresuari begira, «batasuna eta Gabriel Urralbururen aitzindari-tza eztabaidagaitza» azpimarratu zituen Javier Otano, PSNren talde parlamentariako koordinatzailea, atzo Iruñean emandako prentsaurrekoan.

Kongresuan 208 delegatuk, hauetatik 37 emakumeak, ordezkaturiko dituzte PSNren 2.276 kideak. Parte hartuko dutenen artean Carlos Soltxaga, Ekonomia eta Haziendako ministroa, eta Exekutiba Federaleko ordezkari bat egongo dira, baita EAEko eta Atlantiar Pirinotako alderdi sozialisten ordezkariak ere.

Nafarroaren aurrerapena eraikitzen dugu' lema damakien Kongresuko ponentzia nagusiari 157 emendakin eta lau erabaki proposamen aurkeztu dituzte delegatuek, Angel Carrillok emandako datuen arabera.

Nafarroaren aurrerapena eraikitzeke sozialista nafarrek izan dituzten bi bideak, Nafarroako Gobernu eta alderdia, bereiztu zituen Otanok. Lehenengoari dagokionez, «Gobernuak estabilitate instituzionalaren alde egin du apostua, indarkeriaz baliatzen diren aurrean irmotasuna erakutsiz», adierazi zuen Otanok.

PSN-PSOeri buruz, bere ezaugarri aipagarrienak «eztabaida eta batasuna» izan direla ziurtatu zuen, «agian gizartearengana ez garelako hurbildu» aitortuz.

Carlos Cristobal, komunikabide idazkariak, ponentzia nagusiaren edukia eman zuen aditzera. Lehenengo atalean, PSNren azken urteotako ekintzak baloratzen dira, bigarrenean, datozten urtetako egitismoa jorratzen delarik.

NAFARROAK AUTONOMIA SENDOTU Azken urteotako gestioa «oso positibotzat» jo zuen Cristobalek, hiru puntu azpimarratuz. Batetik, «Nafarroak bere autonomia sendotu eta ekonomikoki bideragarria dela frogatu duela» eta, bestetik, «terrorismoaren aurka gizartearen mobilizapena lortu dugula». Azkenik, azpiegituren hobekuntza aritu zen, Leitzarango autobidearen lorpena goraiatuz eta hobekuntzak «gizarte inbertsioen murrizketarik gabe burutu direla» ohareraziz.

Exekutiba berriari dagokionez, ez dirudi aldaketa haundirik egongo direnik, Cristobalen hitzen arabera.



Javier Otano, PSNko talde parlamentariako koordinatzailea.

JOXE

«Aurrerapenerako proiektua»

Nafarroako alderdi sozialistak honako puntuak emango die lehentasuna hamarkada honetan.

AUTONOMIA. Nafarroaren finantza eta politika ahalmena indartzeko ekimenak. «Alderdi abertzaleekin saio integratzaileak mantendu, Nafarroan autonomia eta EAEreko harremani buruz ideia desberdinen elkarbizitza ahalazteko dela frogatzeko».

DEMOKRAZIA. Kultura demokratikoaren garapena, «terrorismoaren aurkako mobilizapen herrikoiarekin» jarraituz.

AZPIEGITUREN HOBEKUNTZA. Nafarroa-Gipuzkoa autobideak eta Itoizko urtegiak izango dute lehentasuna.

EKONOMIA. Konpetitibitatearen hobekuntza, Nafarroako industriaren aniztasuna eta transformazio eta komertzializazio aktibitateak bultzatuz. Langabeziaren aurka borrokatu eta enpleguaren banaketa bermatu.

INGURUGIROA. Ingurugiroa babestu, «horretarako ez da nahikoa botere publikoaren ekintza. Gizarte sektore guzietan parte hartzea bermatuko duten akordio politikoak ere beharrezkoak dira».

NEKAZARIAK ETA EMAKUMEAK. Nekazariak nozitzen duen krisialdiak neurri bereziak eskatzen ditu. Emakumearen berdintasunerako politika suspertu.

GALDEGAIA

Pedro Garcia

EGUNKARIA.— IU/EB alderdiak bi bilkura ditu epe laburrean. Hil honetan bertan udal ihardunaldiak eta datorren hilean, berriz, II. Asanblada Nagusia. Zertarako izango dira bata eta bestea, eta zenbat jende bilduko dute?

PEDRO GARCIA.— Udal ihardunaldiak Eibarren izango dira, hilaren 23an. Helburua da udal programak egiteko oinarriko bidea finkatzea. Ehun ordezkari eta gonbidatu batzuk hartuko dute parte.

Txostenak bi atal dauzka: bata udalen gaur egungo egoera, Europa hartuta inguru bezala; bigarrena udal txostenaren arlo ezberdinak banan-bana lantzea, alegia, gazteen arloa, ongizate soziala, kultur arloa, ondasuna eta hirigintza... Hori edukinari dagokionean. Gero, lehen esan dudana bezala, oinarriko agiria lortu nahi dugu udal programa ezberdinak burutu ahal izateko.

Datorren hileko 9 eta 10ean, ostera, Leioan alderdi II. Asanblada Nagusia burutuko dugu, 250 ordezkariaren partaidetza. Espero dugu, gainera, amaiera ekitaldian Julio Anguita Espainiako IU/EBren koordinatzailea etortzea. Bilkura honetan



Pedro Garcia (IU).

KEPA

egungo egoera aztertuta eta etorkizuneko bideak eztabaidatuko ditugu.

Kontseilu politikoak txosten bakanak aurkeztuko du, baina bi zatitan banatuta: lehena erakunde agiria izango litzateke eta bigarrena agiri politikoa.

Ordezkariak aukeratzeko, berriz, bide bikoitza erabiltzen dugu, herri bakoitzeko taldeak militante kopuruaren arabera eta hauteskundeetan izandako botuen arabera osatzen bait dira.

Lerro artean

Autobidearen errebueltak



Autobidearen A gaia itzuli zen berriro atzo bertako egunkariaren lehen orrialdeetara, argazkia eta guzti. Egunkariak ez dira ados jarri titulatzekoan. Gasteiz eta Iruñeko Legebiltzarretako gobernu organuen ekitaldia eta HBk ingurune horretan ezagutzera eman zuen proposamena ziren informazio-gunearen zutabeak. Bata ala bestea aukeratuta, ikutu ezberdinak eman zizkioten egunkari ezberdinek. Dena dela, oro har, bertako egunkariaren arteko diferentziak baino deigarriagoa zen, bertako eta Madrilgo (eta Bartzelonako) egunkariaren arteko. **Diario 16, El Independiente, El Mundo, Abc, eta La Vanguardia** egunkariak HBren proposamenaren lehen puntua (ETAri ultimatum erretiratzeko eskaera) aukeratu zuten titulatzeko. Ekitaldi instituzionala bigarren maila batean utzi zuten

egunkari hauek. **El Pais** egunkariak zutabe erdi batetan biltzen zuen gai honi buruzko informazioa, irudiari lekuri eman gabe, garrantzirik eman gabe.

Bertako egunkarietara bueltatuz, titularrak egiterakoan irudimena erabili zela baieztatu daiteke. **Deiak** bi argazki eta honako titularrak (nagusia) eskaini zituen bere lehen orrialdean: «Gasteiz eta Iruñeko Parlamentuen arteko bileren historia autobidearen alde». **Diario Vascok** argazki bakarra eta honako titularrak: «Autobidea: eusko eta nafar legebiltzarren ez dira ETArekin beldur» (gutxi-gutxi behar izan zuten). **Navarra Hoy** egunkariak ekitaldiaren argazki handi bat eta titular hau: «Autobidea eraikitzearen konprometuz demokratikoa». **Eginek** beste zutabeari heldu zion: «HBk autobidearen gaineko ultimatum etentzea eskatu dio». Azkenik, **Diario de Navarra** egunkariak «irudikorrena» proposatu zuen: «Askatasunaren autobidea».

Titularrez gain bazeuden aspektu aipagarri gehiago atzoko egunkarietan gai honen inguruan. **El Diario Vasco** eta **Deia** egunkariak Adierazpen Instituzionalaren testua argitaratu dute. Bigarren aldiz, joan den astean Gasteizko Legebiltzarrean onetsi zenean ere argitaratu eman bait zuten. **Diario de Navarra** aurreko astean ez zuen argitaratu eta atzokoan bai. **El Diario Vascok, Deiak** eta **Eginek** argitaratu dituzte HBren proposamenaren puntuak, baina Deia kasuan «HBren eskaerak» izenburupean. **Deiak** bere bi kazetarien eritziko artikulua bana biltzen du, bata Amatiñoren eta bestea Jose Felix Azurmendirena. Oso mezu ezberdinekoak. Amatiñok HBren proposamena «beranduegi» datorrela zioen. Azurmendik, ordea, elektoralismoaz eta «erabaki instituzionalen aldeko jarrera intransigente baten errentagarritasunaz» idatzi zuen, erreferendumaren aukerarekiko nolabaiteko aldeotasuna erakutsiz.

PELLO URZELAI

Santi Brouarden kasuko bi susmagarriren arteko bekaldura

BILBO

Santiago Brouarden hilketaz arduratzen den Bilboko Argipideetarako 1. Epaitegiko titularrak lekuko biren arteko bekaldura agindu du, biek egindako adierazpen kontraesankorrak direla eta.

Bekaldura hilaren 20rako izatekoa da, Daniel Fernandez Aceña ustezko GALeko kidearen eta Jean Louis Peralesen artean. Fernandezek Peralesi leporatu zion Santiago Brouard HBko buruzagia hil zuen komando-komando portatze izatea.

Peralesek ukatu egin zuen salaketa joan zen urtarriaren 30ean egindako adierazpenetan epailearen aurrean. Adierazpen berebean ukatu egin zuen Daniel Fernandez ezagutzen zuen beronen argazkia erakutsi ziotenean nahiz eta biak gartzela berebean egon, Txema Montero salaketa partikularreko abokatuak azaldu zenez.

Maria Isabel Durand Gil, kasuaz arduratzen den zortzigarren epaileak, beste bekaldura bat agindu du Perales eta Miguel Angel Lopez Ocañaren artean, hilaren 22rako, iturri judizialek jakitera eman dutenez.

Miguel Angel Lopez Ocañak sarritan salatu du bere burua Santiago Brouard hil delakoan, hala ere agintaritzaren judizialek inoiz ez dute kontutan hartu. Rafael Sanchez Ocañaren aurrekoaren anaien, berriz, Santiago Brouarden hilketan parte hartzeagatik prozesatua dago.

Otsailaren 25erako Jose Pablo Fuertes epaile aurrean agertzeko da. Fuertes Luis Morcillo Pinillo, ustez atentatuaren eragilearen sozioa izan zen PG-2 elkartearen, egoitza komertzialak hustiatzeko.